Gure blogg-ak eduki ahal dituen bezero profila, pertsona kirolari eta bere osasunataz arduratzen den pertsona da, edo gutxienez, helburu zehatz bat duena aurretik aipatutako bi ezaugarriren bat lortzeko. Nahiz eta guk gustuko nahi izango ditugun bezeroak horiek izan, web orrialde publiko bat denez, edonor sartu daiteke, eta nolabait, hori da guk lortu nahi duguna: Gure web orrialdea bisitatzen duen pertsona, kirola egiteko eta osasuna mantentzeko gogoak sartzea, izan ere, bi gauza horiek, ezinbestekoak direla uste dugu.



Esan bezala, blogga publikoa izango da, horregatik, bezeroekiko harremana printzipioz guk sortutako euskarria (bloggaren edukia) izango da harremantzeko era, hau da, hasiera batean ez dugu harreman pertsonal bat edukiko gure web orrialdea bisitatzen duenarekin. Hori bai, gurekin pertsonalki harremantzeko baliabideak beti egongo dira begi bistan, edozein laguntza eskeiniz (zalantzak, informazio gehigarria…)

Gure bloggaren bisitatzaile batek, gure bezero izan nahi badu, aurretik esandako begi bistako baliabide batetik gurekin kontaktuak jartzeko aukera zuzena izango du. Nahiz eta kontaktuan jartzeko aukera email bidez izan, bezeroak izanez gero, fax zenbaki eta mugikor zenbaki baten bidez (bai dei arruntak bai whatsapp bidez) gurekin harremantzeko aukera izango du. honekin, bezeroari ahalik eta erraztasun gehien eman nahi diogu, eta bidea erabateko oztoporik gabe izatea. Hau lortzeko, 24h baino lehen erantzun bat jasoko duela bermatzen dugu.

